

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

359 zb.
www.getxo.eus

>> 2021eko Iraila



ZURRUMURRURIK EZ
ANTIRUMORES



Getxo
bizi ezazu

Nabarmen^{tze}koak

- > Getxoko Zurrumurrurik Ez gazte taldeak bere ekintzei ekingo die irailetik aurrera
- > Caleidoscopioren bigarren aldia, argazkilaritza garaikideko online programa
- > Tailerrak eta ikastaroak urritik abendura

Caleidoscopioren bigarren aldia, argazkilaritza garaikideko online programa

Caleidoscopio, argazkigintza garaikideari buruzko irudiaren munduari lotutako hezkuntza-programa, irailean abiatuko da, bere bigarren ekitaldia betetzeko. Udal Ekonomia Sustapenerako Arloa-Getxolanek diruz laguntzen du, eta 2022ko urtarrilera bitartean egingo da. Getxoko zein Euskadiko 16 eta 25 urte bitarteko gazteak izanik, beraien lan artistikoa garatu eta ezagutzak zabaldu nahi dituztenei zuzenduta dago, argazkigintza arlo desberdinetan lantzeko tresna gisatzat hartuta, hala nola praktika artistikoa, ikerketa, artxiboa, edizioa, argitalpena, kudeaketa eta komunikazioa.

Hezkuntza-modulu teoriko eta praktikoak antolatuko dira, online batez ere, baina aurrez aurreko jarduerak ere antolatuko dira. Tailer, topaketa eta masterclassak nazioartean irudiaren inguruan lan egiten duten hamabost profesionalak emango dituzte: Lua Ribeira, Jon Cazenave eta Bego Anton argazkilaria ospetsuek, Erika Goyarrola komisarioak eta Dalpine argitaletxeak. Egitarauan izena emateko epea irailaren 7an itxiko da. Argibideak eta inskripzioak: www.caleidoscopiophoto.com



BEKAK SARIAK

* **Ikasiker lankidetzak beka**, Eusko Jaurlaritzak deituta ikerketa lanetan hasi nahi duten unibertsitate-ikasleentzat. 220 beka deitu dira, guztira, bi modalitateetan: A) 165 beka emango dira, bakoitza 1.800 eurokoa, unibertsitate batean gradu ofizialeko titulazio baten azken bi ikasturteetako batean matrikulatutakoentzat (2022ko urtarrilak 1-ekainak 30 epealdia); B) 55 beka, bakoitza 600 eurokoa unibertsitateko gradu ofizialeko edo gradu bikoitzeko azken bi ikasturteetako batean edo Master ofisial batean matrikulatuta dauden ikasleentzat (2022ko ekainak 1-irailak 30). Eskaera-epaia: 2021/09/20. Argibideak: 2021-07-16ko 141. EHAA.

* **Rockein! Banda lehiaketa**, musika estilo guztientzat Basauriko Udalak deituta. Baldintzei dagokienez, izena eman ahal dute 16 urtetik gorako kideak dituzten taldeak eta haietako bat, gutxienez, EAEn edo Nafarroan egoitza badu, besteak beste. Sariak izango dira talde irabazlearentzat, bertako talde onenarentzat, euskarazko talderik onenarentzat eta Eskarabilera saria (gutxienez %50 emakumez osatutako taldeentzat). Eskaera-epaia: 2021/09/30. Argibideak: <https://labur.eus/fgmNc>

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Iraila

Hilak 3, ostirala: ASANBLEA: URRIKO PROGRAMAZIOA
Hilak 7, asteartea: EKINTZA: KAMISAK TINTATU
Hilak 9, osteguna: EKINTZA: ESKUMUTURREKOAK
Hilak 11, larunbata: IRTEERA: ARTXANDA
Hilak 15, asteazkena: SUKALDARITZA: CUPCAKES
Hilak 18-25, larunbata: TAILERRA: ITZAL ANTZERKIA
Hilak 21, asteartea: TXAPELKETA: PIN-PON
Hilak 23, osteguna: TAILERRA: GLOBOFLEXIA
Hilak 29, asteazkena: TAILERRA: ELIKAGAIEN GALERA ETA HONDAKINEN EGUNA

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Iraila

Hilak 3, ostirala: ASANBLEA: URRIKO PROGRAMAZIOA
Hilak 4, larunbata: TXAPELKETA: FUTBOLINA
Hilak 10, ostirala: MASTER CHEF: FRUTAZKO IRABIAKIAK
Hilak 11, larunbata: TXAPELKETA: JUST DANCE
Hilak 14, 21 eta 28, asteartea: LABURMETRAIA: BELDUR BARIK
Hilak 17, ostirala: ESKULANA: ESKUMUTURREKOAK
Hilak 18, larunbata: IRTEERA: ESCAPE ROOM
Hilak 22, asteazkena: IRTEERA: ZIRKOA
Hilak 25, larunbata: ESKULAN TAILERRA: BIRZIKLATUTAKO PANELAK (ODS)
Hilak 29, asteazkena: IRTEERA: DANTZA



Uztailean nazioarteko VI. Goi Bileran parte hartu ondoren Getxoko Zurrumurrurik Ez gazte taldeak bere ekintzei ekingo die irailetik aurrera

Getxoko Zurrumurrurik Ez gazte taldeak irailetik aurrera ekingo dio bere ekintzei, helburu argi batekin: egunero aurreiritzi eta estereotipo negatiboak ezabatzeko lan egitea. Talde irekia eta oso aktiboa da aurreiritzi eta estereotipo horien aurkako borrokan, eta gero eta pertsona gehiagok parte hartzea nahi du, "sarea ehunduz lortzen baitira aldaketa handienak". Urte osoan biltzen dira, eurek erabakitzen dituzten hainbat ekimen eta proiektu forma emateko, tokiko testuinguru batean, ingurune hurbilenean. Horregatik, hurbilagotik ezagutu nahi badituzu, zer egiten duten jakin nahi baduzu eta haiekin bat egin nahi baduzu, Gazte Bulegoan edo 944660151/688 658 009 telefonoetan eska dezakezu informazioa.

Getxoko talde honek "Let's go global" lelopean uztailean egin zen Zurrumurrurik Ez Gazteen VI. Goi Bileran parte hartu zuen. Sormenari, berrikuntzari, eztabaidari eta aktibismo handiari buruzko lau jardunaldi izan ziren, zurrumurrurik gabeko bizikidetzaren alde, eta hitzorduan parte hartu zuten Estatu espainiarreko beste 14

lurraldetako eta Suediako, Italiako eta Portugalgo gazteekin batera, aurten goi-bileran parte hartu baitute herrialde horiek. 2020an bezala, aurten ere modu birtualean ospatu da, nahiz eta Getxoko taldeak, Bilbokoarekin batera, formatu mistoa aukeratu duen, gailurrean gainerako lurraldeekin online konexioaren bidez parte hartuz, baina bi taldeetako kideak lau eguneko elkarrekin bizi izan diren eta partekatu duten gune batetik eginez, "eta horrek, zalantzarik gabe, aberasgarriagoa eta animatuagoa egin du". Baina, osasun-egoerak ahalbidetzen duen modalitatea edozein dela ere, Zurrumurrurik Ez gazte taldeak ez du bere funtsa galtzen: parte-hartzea, esperientzien trukea, sareak

eraikitzea eta gizarte kritikoak eraikitzen jarraitzeko teknika berriak ikastea, zurrumurruren, estereotipoen eta aurreiritzien eragina murrizteko gai izango direnak. Goi bilera horren bidez, getxotar gazteen taldeak sareak sortzearen, lurraldeen arteko lankidetzaren eta sormenaren balioa sendotzearen garrantzia berretsi du, gizarte kohesionatuago eta eraginkorrago baten diseinuan. Horrez gain, administrazio publikoaren, gizarte-erakundearen eta herritarren konpromisoa konbinatua aldaketa esanguratsuak sortzeko funtsezko eredu dela berretsi du.

Taldeak gogoz itxaroten du osasun-egoerak nazioarteko goi-bilerari horiek aurrez aurre egiteko aukera eman dezan.

***Aholkularitza psikologikoko zerbitzua.** Udaleko Gazteria Arloak gogoratzen du Algortako Gaztelekuaren eskaintzen den aholkularitza psikologikoko zerbitzua berriro erabil daitekeela. Zerbitzua udalerriko 13 eta 30 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta, horiei zalantzak argitzen laguntzeko, baita autoestimarekin, harremanetako segurtasun ezarekin, tristurarekin, antsietatearekin eta abarrekin lotutako ondoez mota desberdinei aurre egiteko ere. Zerbitzua astean behin ematen da, aldeztatik hitzordua eskatuta: tel.: 685 70 41 18; e-posta: aholkularitza@getxo.eus

TAILERRAK ETA IKASTAROAK: URRITIK ABENDURA

IKASTAROA	EGUNAK	ADINA	ORDUTEGIA	HIZKUNTZA	TOKIA
OSASUN DIGITALA	Urriak 16 eta 23	15 urtetik gora	10:00h-13:00h	Gaztelania	Algortako Gazteleku
MUSKULU-KATEAK	Azaroak 13 eta 27	15 urtetik gora	10:30h-12:30h	Elebiduna	Romoko Gazteleku
LAN-ORIENTABIDEA	Abenduak 4	17 urtetik gora	10:00h-13:00h	Elebiduna	Romoko Gazteleku
BIZIKLETAK KONPONTZEKO TAILERRA	Abenduak 18	14 urtetik gora	10:00h-13:00h	Gaztelania	Algortako Gazteleku

Informazioa eta izen-ematea doan eta zabalik, plazak agortu arte: **Gazte Bulegoa (Tangora Etxea, Algorta etorb. 98. Tel.: 944 66 03 53); gaztebulegoa@getxo.eus (izena eta harremanetarako telefonoarekin batera egin nahi den ikastaroa edo tailerra adierazita); www.getxo.eus/gazteria.**